

Gendulain, Tuterako baina handiagoa

EDURNE ELIZONDO
Iruñea

Etxebizitzaren esparruan CDNk egiten duen politika ausartak nire lehen etxea erosi ahal izateko askoz ere berme gehiago ematen dit. Horixe dio Nafarroako egunkari baten azken orrialdean alderdi horrek egunotan jarri duen iragarriak. «Etxebizitza Sailak babes ofizialeko 12.100 etxe egin ditu lege-gintzaldi honetan», gaineratzen

du. 12.100 horiei, beste 14.000 gehitu nahi dizkie Jose Andres Burguete kontseilariak (CDN), kolpe bakar batean. Nola? Gendulaingo hirigintza proiektua garatuz. Urta-rrilaren 25ean ezagutarazi zuen Burguete Gendulain garatzeko ideien lehiaketa Diagonal izeneko proposamenak irabazi zuela; 19.000 etxebizitza berri; haietako 14.000 (%75), babes ofizialekoak.

«Erdiko epera, nafar guztiak etxebizitza duina eta prezio ego-

Nafarroako Gobernuak Iruñerrian 19.000 etxebizitza berri eraikitzeke aurkeztu duen proiektuak hautsak harrotu ditu herrialdeko alderdien eta alkateen artean.

kian eskuratzeko duten eskubidea bermatuko dugu», erran zuen kontseilariak. Burgueteren eta Nafarroako Gobernuak alderdien pozak ez du islarik izan, ordea, oposizio taldeen artean. Nafarroak ez duela Gendulain behar erran dute. CDNren politika, akaso, ausartegia dela, alegia.


Nafarroako Gobernuak 2005ean antolatutako lurrak erosteko lehiaketa publikoa, eta, haren esku- tuta, duela urtebete erabaki zuen

Sustatzaileen eta Eraikitzaileen Elkarteko hainbat kidek eskaini zizkioten lurrak erostea: denera, 3,2 milioi metro koadro. Lur horien zati nagusia Zizur zendea dago; eta zati txiki bat, berriz, Galarren. Eraikitzaileek eta sustatzaileek jabe- erosi zizkioten lurrak; Gendulaingo kondearren oinordekoei, alegia. Izan ere, bost milioi metro koadrotik goitiko eremu hutsa du familia horrek. Eredu horren zati bat geratu da Gobernuaren esku.

ZUHURTZIA. Gobernuak esku artean duen proiektua gauzatzen bada, herrialdeko bigarren hiri bilakatu- ko litzateke Gendulain; Tuterako baina handiagoa. Hori dela eta, zuhurtzia eskatu dute PSNk, IUN-NEBk eta Aralarrek. Kezkarekin bat egin du EAK.

Oposizioak Gobernuari eskatu dio Gendulaingo proiektua bazter- tzeko eta haren inguruko erabaki- rik ez hartzeko. Haren ustez, maia- tzeko hauteskundeen ondotik sortu- to den Nafarroako gobernu berri- rak erabaki beharko luke Iruñerria garatzeko zer-nolako urra-

■ gendulaingo hirigintza proiektua



«Hiri sakabanatua eta zatikatua da Iruñea»

Hiri eredu bakarraz mintzatzea zaila dela dio Andoni Iso soziologoak. Hiri baten eraikuntzan parte hartzen duen eragile orok, eta bertan bizi direnek, denek islatzen dutelako hiri eredu propio bat. Horregatik, joera nahiago du hitz egin, eta Iruñearen eta Iruñerriaren joera argia da, haren hitzetan: «Hiri sakabanatua eta zatikatua da Iruñea. Prozesu hori areagotu besterik ez luke egingen Gendulainek».

Areagotu, eta biderkatu. «Hiri berri bat eraikitzea da; 50.000 pertsona sartzea Zizur eta Iruñea artean. Eta horiguztia, hamar urte eskasean. Egoera horri aurre egiteko azpiegitura nahikorik ez da». Desoreka sortuko litzateke Iruñerrian. Isok argi du, gainera, Gendulainen asmoa ez dela dagoen beharra asetzea. «Ez baita halako beharrik. Babes ofizialeko etxeak behar dira, baina ez 14.000 Gendulainen».

ENRIQUE MIRANDA Zizur zendeako Udaleko zinegotzia

«Proiektu hau astakeria da»

E. E.
Iruñea

Hiru taldek osatzen dute Zizur zendeako Udala: alkatetza bere esku duen Zizur Zendea Talde Independentea, Erreniega eta Zendea Berria. Gendulainen kontra ados jarri dira. Erreniegako zinegotzi Enrique Miranda mintzatu zaigu.

Zizur zendeako Udala Gendulaingo proiektuaren kontra egintza. Zergatik? Zizur zendearen gisako udalerritan Gendulainen moduko hiri bat sartu nahi izatea astakeria galanta da. 2.000 biztanle ditu Zizur

zendeak. Gendulainek udalerriko egoera soziala eta ekonomikoa hankaz gora jarriko luke. Halako proiektu bat, gainera, ez da bideragarria; halako beste proiektuetan gertatu dena gertatuko litzateke.

Zer? Barañain edo Burlata aipa ditzakegu. Asko hazi ziren, etxebizitzaren eta ekonomiaren hazkunderaren arteko oreka kontuan hartu gabe, eta, azkenean, dirurik gabe gelditu ziren. Guk ez dugu gauza bera gertatzea nahi. Badago horien gisako beste esperientziarik: Mendillorri.

Ez zen bideragarria, eta, azkenean, Iruñeko Udalak hartu behar izan zuen bere gain.

Gobernuak mahai gainean jarri duen proiektua ez da zuek Zizur zendearentzat buruan zenutena, ezta?

Asmoa ez zen, inondik inora, Gendulaingo proiektuaren gisako deus egitea. Gainera, hainbat irregulartasun gertatu dira.

Zer irregulartasun?

Batetik, erosketa kontratazio mahai osatu gabe egin du Gobernuak. Gainera, dirutan ordaindu beharrean, enpresen esku utzi ditu

eraikitzeke eskubideak. Gendulainen eraikiko diren etxebizitzaren % 20 baino ez ditu Gobernuak egingen. Beste hainbat kontu dago. Jabeek, batetik, beren lurrak bitan zatitu dituzte eraikitzaileei saltzeko, baina hori egiteko baimenik ez zien eman Udalak.

Auzitarajo duzue, ezta?

Bai, batetik Erreniega taldeak, eta, bestetik, Zizur zendeako Udalak; beste hainbat auzitan, halaber, Udaleko oposizio taldeak gaude, gu eta Zendea Berria taldea. Lurra erosteko lehiaketaren kontrako helegiteak aurkeztu ditugu, batetik; bestetik, lehiaketaren beraren emaitzaren kontrakoak, eta, hirugarrenik, ideien lehiaketaren deialdiaren kontra.

Proiektuak aurrera egingen du?

Kontua da proiektuaren plana hiru urteren buruan egiteko baldintza ezarritutela enpresa eraikitzaileek, eta, hala gertatuz gero, eraikitzeke beren eskubideak behin betiko bilakatu dira. Horregatik uste dugu mugimendu arraroak gertatzen ari direla.

Zer-nolako mugimenduak?

Lurzoruaren Mahaian dauden udalek hasieratik erran dute Gendulainen gisako proiektua ez dela behar, Iruñerriaren dauden beste proiektuek behar adina etxebizitza bermatzen dutela. Ezustean, Eguesibarrek bertan behera utzi du 15.000 etxebizitza egiteko plana. Uste dut UPNk eta CDNk udalen argudio hori hutsean utzi nahi dutela, Gendulaingo proiektua justifikatzeko.